

'Oporrak Bakean' programa martxan, Biterin erakusketa jarri da ostiralera arte

Ostiralean bertan hitzaldi bat eskainiko du Biterin, 19:00etan, Hassana Aalia errefuxiatu sahararrak egoera eta programari buruz hitz egiteko.

HERNANI SAHARA

Oporrak Bakean programa otsailan hasi zen eta martxoaren 31ra arte egongo da martxan. Programa honetan haur errefuxiatu sahararrak udaran Euskal Herrian hartzeko balio du eta aurkezpenaz azaldu zuten aurretik ehun bat familia behar dituztela haurrak hartzeko, *Bidaia bat baino gehiago* kanpainaren baitan. Biterin gaurtik ostiralera arte, erakusketa jarriko da kanpainaren bueltan eta eskuerrak egongo dira.

Ostiralean bertan, 19:00etan, Biterin Hassana Aaliak, Hernanin bizi den Saharako errefuxiatu politikoak, Saharako testuinguru eta egoera politikoak hitz



Pasa den urtean harrera egin zitzaizkien Udalean haur sahararrei eta harrera familiei.

egingo du. Ondoren, *Oporrak Bakean* egitasmoaren helburuez hitz egingo da eta programaren inguruko zalantzak argitzeko baliatuko da hitzaldia.

Familiak behar dira haurrak Euskal Herrian hartzeko

laz 289 adingabe etorri ziren Euskal Autonomi Erkidegora, eta udara honetan beste horrenbeste ekarri nahi dituzte.

Horretarako ehun bat harrera familia behar dira. *Oporrak Bakean* programak 10 eta 12 urte bitarteko haurrak udako bi hilabeteetan euskal familiekin bizi-zea errazten du.

Edozein familia motak parte har dezake harrera-familia gisa, bai bakarrik dauden pertsonak, bai bizikidetzak-unitateak, seme-alabekin edo gabe. Baldintza garrantzitsuenak

adingabeari eskaintzeko denbora eta gogoia izatea eta ostatu hartzeko tartea izatea dira.

Informazio guztia *oporrak-bakean.eus* webgunean jasota dago. Udaran, bi hilabetez saharar ume bat etxean hartu nahi baduzu harremanetan jarri *lan-kidetzak@gmail.com* webgunean edo 943 33 70 17 telefonora deitu, Aristizabal 7 behea helbidean ere egongo dira. **K**

Hernanik galdu eta 15 puntura du orain promozioa

Burgosek 42-7 irabazi dio Hernaniri eta Cisnerosen garaipenak oraindik eta urrutiago utzi ditu azkenurreko eta salbazio postuak.

HERNANI ERRUGBIA

Jakina da Hernanik maila galduko duela aurten eta nahiz eta hori egutegian ahalik eta gehien urruntzen saiatu, jeitsiera gero eta gertuago dago denboran.

Asteburuko emaitzak ez dira onak izan trikoloreentzat eta orandik eta gehiago aldendu dira promozio eta salbazio postuak.

Hernanik 42-7 galdu zuen atzo Aparejadores de Burgos taldearen aurka eta Cisnerosek berri irabazi egin zuen Cienciasen aurka etxean. Bathcok ere galdu egin zuen Santandergo derbian eta beraz orain kantabriarrak daude azkenurren sailkapenean 15 puntura eta Cisneros momentu honetan Ohorezko Mailan mantenduko litzateke Hernaniren aurretik 17 puntura

daudelarik eta Cienciasengandik puntu bakarrera.

Hasieratik atzetik Burgosen

Partidua zaila zuten hernanien aurka Burgosen eta etxeok nagusi izan ziren hasieratik amaierara arte. Denboraldi hasiera kaxkar bat egin eta gero, orain play offetarako borrokan daude sarturik eta hori nabaritu zen zelaian.

Lehendabiziko hamar minutuetan Hernanik eutsi zion markagailuari defentsako lan on baten bitartez, baina 13garren minutuan etorri zen Burgosen

lehendabiziko entsegua (5-0).

Hortik aurrera markagailua haunditzen joan zen atsedenaldira iritsi arte. Lehen zatia amaitutakoan 20-0 ziren aurretik etxeok, hiru entsegu egin eta gero.

Bigarren zatia ildo beretik hasi zen Burgosen laugarren entseguarekin (25-0), baina Hernanik bere zazpi puntuak lortu zituen bigarren zatian (25-7). Hortik amaierara markagailua etxeok alde mugitu zen zigor kolpe batekin eta bi entsegu eta transformazioekin 42 eta 7 geratuz azken markagailua. **K**



Batzarrak eginen dira larunbatean

GOIZUETA UMORE ONA

Goizuetako Umore Ona elkartean bazkideak ez ohiko batzarrera eta ohiko batzarrera daude deitua larunbatean, martxoaren 7an. 16:30etan lehenengo deialdian eta 17:00etan bigarren deialdian estatutuen 12. artikulua aldaketa proposamena landuko da. «Bazkideak bere lekua eta eskubideak traspasatu ahal izatea heriotza edo eritasun larrikeria tarteko izan gabe» adostu nahi da. Ondoren ohiko batzarra eginen da.

Bazkide kuota ordaindu behar da

HERNANI GOIZ EGUZKI

Goiz Eguzki jubilatuen etxeak beren bazkideei jakinarazi nahi die 2020 urteko kuota kobratzen hasiko direla gaurtik aurrera. Bazkide kuota 10 eurokoa da, pasa den urtean bezala. Bulegotik pasa behar da astelehen, asteazken edo ostiralean 16:00etatik 18:00etara.

Sendotze topaketak bihar hasiko dira

HERNANI ELIZA

Bihar hasiko dira sendotze eta konfirmaziorako topaketak. Asteartean izango da 19:45etan apaizetxeko batzar gelan (Izpi-zua 3) 18 urtetik gorakoentzat. Ekainaren 6an sendotzeko sakramentua hartu ahal izango dute parte hartzaileek.

Odol ematea, bihar ambulategian

HERNANI ODOL EMAILEAK

Odol emileen elkarteak gogorarazi du bihar izango dela aukera, Hernaniko ambulaterioan, odola eman edota organo donante egiteko. Erizain boluntarioak 18:00etatik 20:30etara ariko dira lan horretan.

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura

OGI BERRI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Kontxa etxeberria 2
Astigarraga
943 12 64 24

Allianz ASEGURUAK
bizitza -
ibiltasunak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

EGURDIA
GAUR Hainbat fronte sistema iritsiko dira, eta ipar-mendebaldeko haize oso zakarra eragingo dute eta euria barra-barra egingo du.
Min.6° / Max.13°

BIHAR Goizean euria egingo badu ere, tartekatuta eta nahiko ahul egingo du. Eguerditik aurrera, aldiz, zaparradak mardulagoak izango dira.
Min.6° / Max.13°

ARGITARATZAILA
DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Udala
Gozietako Udala
ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK
Euzko Jaurlaritzako Gobernua
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzaria

Langile ikastolak ekitaldi ugari ditu martxan 50 urte ospatzeko

Floridako lokaletan ikasketak hasi zituztenentzat bazkaria antolatu da Etxeberrin eta txartelak erosi daitezke jadanik.

HERNANI HEZKUNTZA

Langile ikastolako 50. Urteurrena dela eta maiatzaren 16an, larunbatean, bazkaria antolatu dute Florida auzoko lokaletan beraien ikasketak hasi zituzten ikasleentzat, gurasoentzat eta irakasleentzat. Etxeberriko frontoian egingo da bazkari hau eta paella jatea, postrea eta edaria barne 10 euroren truke erosi daitezke bazkarirako txartelak.

Atzo jarri ziren salgai eta martxoaren 29ra bitarte ostegun zein igandetan erosi daitezke: ostegunetan (martxoak 5, 12 eta 26an) Biterin, 17:00etatik 19:00etara eta igandean (martxoak 8, 15, 22 eta 29an) Auzokiden, Etxeberri 3, 11:00etatik 13:00etara. Eguraldia aldekoa ez baldin bada karpa jarriko da. Bazkari hau Floridako lokaletan ikasketak hasi zituztenentzat



Langile ikastolako urteurren ekitaldi nagusian abestuko du Ainhoa Larrañagak.

dago zuzendua.

Ekitaldi nagusia martxoaren 14an

Bestetik, urteurrenaren ekitaldi nagusia martxoan bertan antolatu da. Hori martxoaren 14an izango da, Atsegindegian, eta 19:00etan hasiko da. 22:30etan kontzertuak antolatu dituzte Kilimak, Trini-Fox eta Ainhoa Larrañagarekin.

Bi ekitaldi horietarako sarrerak salgai daude Biterin 18:00etatik 19:30etara 5 euroan. Bihar, etzi eta ostegunean egongo dira salgai.

19:00etako emanaldi nagusian, denetik izango da: mar-

golariak eta txalaparta, dantzariak, bertso jolas anekdotikoa, dokumentalaren aurrerapena, argazki emanaldia, eta Langileko ereserkia berriaren aurkezpena, bosgarren mailako ikasleentzat.

Hala ere, motorrak berotzen egun bat lehenago hasiko dira, martxoaren 13an 16:45etan, Disko Festarekin. Laubidetako kirol eremuan egingo da, LHko ikasleentzat. Eta hilabetea amaitzeko, martxoaren 28an, Kontu Kantari ikuskizuna antolatu da Biterin, HHko ikasleentzat. Ikuskizun honetarako ere, sarrerak gaur jarriko dira salgai, Bidebietan 16:30etan, 4 euroan. **K**

JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaiak ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Lasto batek gameluaren bizkarra hautsi zuen

Ezer ez da ezergatik. Horrela, kausa orok ondorio bat du, baina gizadiaren historia berrian gero eta gehiago gertatzen da gertaera tragikoen biktima gisa ondorioak jasaten dituztenak gertaera horien eragile izatetik oso urrun daudela, eta erantzukizuna zigorgabetasunezko giro sistemiko batean diluituta gertatzen dela, atxikimendu mediati-koekin.

Zigorgabetasuna beren gehiegikeriei eta lastoz lasto irautea ahalbidetzen dieten elite batzuentzat, herritar ahulenen bizkarrak gainkargatzen jarraitzen dute, eta NBEko kontalariaren arabera, euroaren eta Espainiaren arteko arrakala gero eta haundiagoa da, pezetatan kobratzen dutenen eta eurotan erosten dutenen artean. Lasto bat gehiagok bere bizkarra hautsi zuen bezala, azken kamioiak Zaldibarko zabortegiko zorigaiz-

toko lur-jausia eragin zuen... Eguneroko fluor-minidosiak bakarrik gaixotuko gintuzke atzera bueltarik gabe.

2014an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak EAEko kontsumoko uraren fluorazioari buruzko "EIS azken txostena" idatzi zuen. Gaur, ageri-agerian, ez prentsak ez euskal osasun-erakundeek ez dute jaso ISGlobal Institutuak urtarrilean egindako txostena, iturriko uraren kontsumoari lotutako maskuriko minbizietan duen eraginari buruzkoa, prebentziozko osasun-gabeziaren ondorioz.

Airea eta ura dira gizakiek gehien kontsumitzen dituzten eta osasun globalean garrantzi handia duten bi produktuak. Zaldibarko istripuak eragindako aire toxikoarekin, oraindik diote: «Dioxina kopuru hori sortuko zela jakinez gero, lehenago hartuko genituen neurriak».

Berehala konpontzen ez badute, nahiz eta isildu eta ezkutatu, egunen batean gauza bera irakurriko dugu uretan dagoen fluorragatik.

Atzo amiantoa izan zen, gaur dioxinak eta furanoak eta bihar fluorra... beti egia ezkutatu gaitzakeenari buruz. Eragin "txiki" horiek gutxiesten, ondorio larriak izaten ari da dagoeneko.

Noiz jakingo dugu industria-jarduera arriskutsuen mapa haietatik eratorritako minbizien geografian gain-jartzearen emaitza? Fluoruroa debekatzea bezalako gutxieneko prebentzio-neurriak exijitzeko kontzientziaztea ekarriko luke, kloroa edangarri gisa zalantzan jartzeaz gain.

Azkenengo hitza Udalek dute...

Iulen Lizaso Aldalur

Etxeberriko 7garren blokean eraiki den eskailera egokitzea eskatu da Plenoan

HERNANI UDALA

Pasa den astearteko Plenoan erregu eta galderetan hernaniar bizilagun batek eskaera bat egin zion Udalari eskailera bat egokitzeko Etxeberriko zazpigarren blokean. «Injustizi bat egin da nire gurasoekin. Adinekoak dira eta bi metroko eskailera bat eraiki da beraien garajearen ondoan eta ezin dute ibilgailurik bertan sartu. Eskailera hori murriztea eskatu zuen. Xabier Lertxundi alkateak erantzun zion bera Udaleko teknikoekin bertan egon zela egoera aztertzen. «Arazoa dimentsionatu behar da. Ikusi dugu egoera eta teknikoekin iritziarekin ikusi dugu ibilgailua sartu daitekeela bertan». Herritarrek erantzun zuten «hori ez dela horrela eta bere gurasoak ezin zutela ibilgailua behar bezala sartu».

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARIA TERESA GONZALEZ ALONSO
(Miguel Garinen alarguna)
- Goian Bego -
Nahiz eta gure artekin urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean
GARIN SENDIA
Hernanin, 2020ko martxoaren 02an

† MARIA TERESA GONZALEZ ALONSO
(Miguel Garinen alarguna)
- Goian Bego -
Gure maitasunaren indarrak zu bizirik jarraitzea lortzen du
ZURE ILOBAK
Hernanin, 2020ko martxoaren 02an

† MARIA TERESA GONZALEZ ALONSO
(Miguel Garinen alarguna)
- Goian Bego -
Agur ahizpak
ARGENTINA (†), PURA (†) ETA LINA
Hernanin, 2020ko martxoaren 02an

IRAGARKI MERKEAK

Astigarragako sagardotegi batean kamarer@ baten bila gabilta. Urte osoko lana.
Email: landepartamendua@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU eguerditan gazteekin aritzeko
Bidaliz zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:
dobera@dobera.eus
Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlaziozko formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

BALORATUKO DA:
- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

ESKAINIKO ZAIJO:
- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formalak

Baldintzak betetzen dituztenen artean aukeratzekotan egin eta baf aukeratu da